

4. eranskina: Bongoren ipuina

BONGO



Egilea: Maria Martinez

Bazen behin zebra talde bat Afrikako sabanan.

Talde horretan zebra gazteak, zaharrak, lodiak eta argalak zeuden.


Denak kolore zuri-beltzak ziren, Bongo izan ezik.

Bongo kolore askotakoa zen: morea, urdina, berdea, laranja eta gorria.



Zebra zuri-beltzak gaiztoak ziren. Bongoren azalaren kolorea desberdina zenez, zebra zuri-beltzek ez zuten Bongorekin jolastu nahi eta baztertzeko zuten. Horrexegatik, beti bakarrik zebilen.

Bongo, berriz, bihotz onekoa zen. Nahiz eta beste zebrek Bongori kasurik ez egin, ondo portatzen zen haiekin. Gainera, beti txisteak kontatzen zebilen.



Goiz batean, Bongo nekatu egin zen. Ez zuen desberdina izan nahi.

Horregatik, zarata egin gabe, alde egin zuen eta inor ez zen konturatu.

Sabanatik zihoala, Bongori suge bat agertu zitzaion. Sabana osoak bazekien suge horrek magia egiten zuela. Bongok ere bazekien.

- Egun on, Bongo! - esan zion sugeak.
- Egun on, suge magikoa - erantzun zion Bongok.
- Niri betidanik bihotz oneko animaliak gustatu zaizkit eta badakit zu horrelako bat zarela. Horrexegatik, desio bat eskatu ahal didazu
-esan zion sugeak.



- Benetan? Eskerrik asko! - erantzun zion Bongok- haxe da nire desioa:

zebra zuri-beltza izatea.

- Ondo, baina kontuz! – esan zion sugeak - euria egiten duenean,

Zure koloreak berreskuratuko dituzu.

Orduan Bongok edozein zebra bezalako itxura hartu zuen.

Zebra taldera abiatu zen. Ailegatu zenean, zebrek esan zioten:

“egun on,zebra jauna”.

Bongo oso pozik jarri zen inork ez zekielako nor zen bera.



Geroago, sabanatik zihoala, Bongo animalia desberdin askorekin topo egin zen: lehoiak, hipopotamoak, elefanteak eta jirafak.

Animalia bakoitzaren nortasuna eta azala berezia zen:

Lehoia azkarra zen eta bere azala horia.

Hipopotamoa lasaia zen eta bere azala beltza.

Elefantea zintzoa zen eta bere azala grisa.

Jirafa alai zen eta bere azala horia eta marroia.

Bongo konturatu zen animalia desberdinak zeudela eta desberdinak izan arren, denak zoriontsuak ziren.



Gutxi barru, zebra taldera bueltatu zen eta bere inguruari begiratu zion: betiko sabana eta betiko zebra taldea zegoen bertan.

Zebrak oso serio zeudenez, Bongok txiste bat kontatu zuen. Orduan, zebrak konturatu ziren Bongo zela.

Txistez barre egiten zuten bitartean, euria egiten hasi zen.

Orduan, Bongoren hasierako koloreak itzuli ziren.

Azkenean, zebra guztiak oso pozik zeuden eta taldeari ez zitzaion axola azalaren kolorea.

